

## Une historikoa

*Euskaldunon Egunkaria*, 1994-08-28: 24.

Gogoan dut nola Venezuelatik heldu berri hartan, 1969ko abuztuan, ikusi genuen Miguel Pelay eta nik Jorge Oteiza hunkitua, malkotan: Arantzazuko hamalau apostoluek osatzen zuten frisoaren gainean, frontoi zoragarrian, ari ziren jaisten astiro, kontu handiz, Arantzazuko Ama, bere Semea etzana, hila, oinetan zuenaren eskultura pieza. Gertaera dramatikoa zen hau, eta 1954an hasi zuen lana Oteizak, istilu grabe asko tarteko, 15 urte gero bere lana burutzeak ez zuen gutxiago merezi.

Orduan 'Zeruko Argia-n' argitaratu nuen artikulua lekuko.

Historikoa izan zen une hau, eta berau lau gizaldi aurreko historia luzearen barruan kokatua: Garibayk (Anberesen 1571n argitaratua) lau gizaldi aurreko historia kontatzen baitu nola "1569an gutxi gora-behera, udako larunbat batez", aurkitu zuen Rodrigo de Balzategik Aranzetan harriz egindako Ama Birjinaren irudia. Eta orain ari ginen bizitzen Oteizak eskulturan, Basterretxeak muraletan eta Lucio Muñozek absideko pintura lan harrigarria burutu zuten hau.

Eta ez da historia hemen geratzen.

Garai hartako zampaketa politikoa batetik, eta gure arteko istiluak bestetik (artistak eta Eliza arteko gora-beherak), hemen egin ziren garai honetan Euskaltzaindiako bilerak, euskara batuaren 'h' auziaren istilu mingarri luzea.

Garai hau tristura handiz gogoratzen dut, baina une berean Saindutegiko lan ederren burutzeak ekarri zigun, haize freskoa bezala, euskal hizkuntza eta artearen garaipena.